



Beasainen burutuko da ikastaroa eta izena ematen duten beasaingarrek matrikularen erdia ordainduko dute soilik

Iaz bezala, Urtxintxa eskolarekin lankidetzan, Beasaingo Udalak aisialdirako begirale titulua lortzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaro honen bidez, Eusko Jaurlaritzak homologatutako “Haur eta Gazteen Aisialdirako Begiralea” titulua lortzeko aukera eskaintzen du herrian bertan. Honela, haurren aisialdian euskaraz lan egiteko formakuntza ziurtatzen duen agiria Beasaindik mugitu gabe lortzeko aukera eskura jarri du Udalak. Gainera, Beasainen erroldatuta daudenek matrikularen erdia ordainduko dute soilik.

Ekimen honekin ere, Beasaingo Udalak gazteei aisialdirako heziketan lan egiteko baliagarria zaien titulazioa lortzeko eskaintza egiten die. Lana egiteko aukeraz gain, aisialdian euskararen erabileran lagunduko duten begiraleen formakuntza sustatzen du.

Ikastaroa urriaren 16an hasi eta datorren urteko ekainaren 11an izango du amaiera. 150 ordu teoriko, 160 praktiko eta memoria baten lanketaz osatua egongo da. Tartean asteburu bateko irteera bat izango da.

Baldintza nagusiak, 2021eko abenduaren 31rako 18 urte beteta

edukitzea, DBHko titulazioa izatea eta euskara maila egokia izatea dira (klaseak jarraitu eta memoria euskaraz entregatzeko gai izatea).

[Informazio gehiago eta baldintzak](#)

AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA

Eusko Jaurlaritzak homologatutako titulua

BEASAIN



BEASAIN



URRITIK - MAIATZERA
+ Asteburuko irteera



9.00-15.00

Egutegiaren info+: www.urtxintxa.eus



450 euro

225 euro Beasainen erroldatuta

2021-2022

IKASTURTEA

Izen-ematea:

www.urtxintxa.eus

Informazio gehiago:

www.urtxintxa.eus

943 27 00 33



Beasaingo Udala



Urtxintxa

KALITATEZKO HERRITARRAK